



**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2018ko AZAROAREN 15eko EBAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA SAILBURUAREN 2018ko OTSAILAREN 26ko AGINDUAREN BIDEZ DEITUTAKO AUKERATZE-PROZESUA GAINDITU DUTEN PERTSONA HORIEK ORDEZKAPENAK EGITEKO ORDEZKOGAIEN ZERRENDETARA SARTZEKO PROZESUAN ONARTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.**

---

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko irailaren 28ko ebazpenaren bidez epe bat ireki zen, 2018ko otsailaren 26ko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuko probak gainditu arren selekzionatuta izan ez ziren pertsonak egiteko ordezkogaien zerrendetan sartzeko interesa ager zezaten, proba horiek gainditu zituzten espezialitateko zerrendan.

2018ko urriaren 1etik 5era bitartean, biak barne, aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, zerrenda horietan onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda argitara eman zen. Behin-behineko zerrenda horien kontra aurkeztutako erreklamazioak berrikusi eta akatsak zuzendu ondoren, onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrenda emango da argitara.

**EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** Argitara ematea 2018ko otsailaren 26ko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuetako probak gainditu zituzten, selekzionatuak izan gabe, espezialitateen zerrendetan ordezkapenak egiteko onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda. Onartutako ordezkogai horiek aipatutako aukeratze-prozesuan lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

**Bigarrena.-** Ondorengo orrietan kontsultatu ahal izango dira onartutakoen behin betiko zerrendak:

- [www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus) orrian /irakaslegunea/ “Administrazio-izapideak” eta “EPE probak gainditu dituztenak izangaien zerrendetan sartzea” estekan klik eginez.
- [www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/](http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/) Lan-arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak /Ordezkapenak egiteko ordezkogaiak / EPE gainditu dutenak ordezkoen zerrenda sartzea / 2018ko EPE gainditu dutenak ordezkoen zerrenda sartzea-2018-09-28ko deialdia eta [www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus) estekan klik eginez.

Bi kasuetan, aldez aurretik erabiltzailearen eta pasa-hitzaren klabeak sartu beharko dira. Klabe horiek izan edo gogoratu ezean, [www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus) orrian egin ahal izango da, “pasa-hitza eskuratzea (edo berreskuratzea )” estekaren bidez.

Ondoren, eta “kontsulta pertsonalizatua” estekan klik eginez, egindako eskaerari buruzko banakako informazioa lortu ahal izango da.



**Hirugarrena.-** Interesatuek gorako errekurtsua jarri ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari behin betiko ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aipatutako ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita; hau da, 2018ko azaroaren 16tik abenduaren 17ra bitartean (biak barne).

**JON AGIRRE HUERGA**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 15a